

ERABAKIA, 2020ko azaroaren 23koa Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitateko gerentearena, horren bidez, BOKIMIKA ETA BIOLOGIA MOLEKULARRA SAILArako F 676 Saileko idazkaria lanpostua aldi batez eta zerbitzu betekizunetan betetzeko deialdia hutsik geratuko dela adierazteko dena.

GERTAKARIAK

Lehenengoa.- Euskal Herriko Unibertsitateko Gerentearen 2020ko azaroaren 3ko erabakiaren bidez deialdia argitaratu zen.

Bigarrena.- Gerentearen erabakiaren bidez, 2020ko azaroaren 23koa, aipatutako deialdian onartutako lehiakideen behin betiko zerrenda argitaratu zen onartutako lehiakiderik gabe.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Lehenengoa.- Honako arau hauek dira aplikagarri:

- Urriaren 1eko Administrazio Prozedura Erkidearen 35/2015 Legea (2015eko urriaren 2ko EHAAan argitaratua).
- Euskal Herriko Unibertsitateko langileen lan-baldintzak arautzeko akordioa (1996ko urriaren 23ko erabakia, 1996ko azaroaren 12ko EHAAan argitaratua).
- Akordioa, 2017ko uztailaren 18koa, AZPko funtzionarioaren plangintza batzordearena, AZPko funtzionarioei zerbitzuen eginkizunak esleitzeko prozedura barematua ezartzeko buruzkoa 2017ko irailaren 28an Euskal Herriko Unibertsitateko Gobernu Kontseiluak berretsia (2018ko maiatzaren 21eko EHAA)..
- Deialdia egiteko UPV/EHUko gerentearen erabakia eta horrekin bat datorren gainerako araudi aplikagarri orokorra.

Bigarrena.- Gerentzia honek eskumena du erabaki hau emateko; izan ere, gobernu taldearen egitura eta funtzionamendu-arloak zehazteko eta eskumenen eskuordetzeko dena hartutako 2017ko urtarrilaren 25eko errektorearen erabakiaren bidez (2017ko otsailaren 3ko EHAA).

Horregatik guztiagatik, eman zaizkion eskumenak erabiliz, honako hau,

ERABAKI DU

Lehenengoa: Erabaki honen eranskinean zehasten den lanpostua betetzeko prozedura amaitutzak jotzea, eta deialdia hutsik gelditu dela adieraztea.

Bigarrena.- Erabaki hau eta dagozkion eranskinak argitaratzea UPV/EHUren webgunean (Administrazio eta zerbitzuetako langileak. Hautaketa eta hornikuntza. Barne-deialdiak).

Hirugarrena.- Erabaki hau jakinaraztea, dagozkion Zerbitzuko Buruari edo Administrazioarengana. Har beza kontuan AZPkoen Atalak.


Laugarrena.- Erabaki honek administrazio-bidea agortzen du eta honen kontra aukerako berraztertze errekurtsoa jar dakioko gerentzia honi, hilabeteko epean, edo, bestela, administrazioarengana auzi-errekurtsoa jarri ahal izango da administrazioarengana auzietarako epaitegietan bi hilabeteko epean. Epe horiek erabakia lehen adierazitako moduan argitaratu eta hurrengo egunetik hasiko dira kontatzen.

Leioan, 2020ko azaroaren 23an

Errektorearen eskumenak eskuordetuta: 2017ko urtarrilaren 25eko erabakia (2017ko otsailaren 3ko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria)

UPV/EHUko GERENTEA

Miren Lorea Bilbao Arteché



I. ERANSKINA ZERBITZU BETEKIZUNA 2020/11/3

HUTSIK / DESIERTA

Lanpostuaren izena: Saileko idazkaria
Lanaldia: Arotua
Eref.: F 676
Zenbatgarrena 31
Maila: 18
Taldea: C/D
REskala: Administraria/Administrari laguntzailea
H.E.: 2;
Langunea: **BIKIMIKA ETA BIOLOGIA MOLEKULARRA SAILA**
Campus: **BIZKAIA**
BE:
Ondorio data: